

al igual que en Oquendo al celebrar el tricentenario de José Pablo de Ullibarri; el Consejo de Cultura sacó a la luz la edición facsimil del inédito *Gutunliburua* y espera publicar su transcripción y comentarios para completar la edición crítica y estoy seguro que se llegará a una más estrecha y eficaz colaboración.

Comprendemos las dificultades que tiene vuestra ingente tarea de defensa del Vasceuce, sacarlo de su repliegue histórico, actualizarlo, formar el lenguaje literario unificado, promover su uso; he nacido en las Encartaciones, he vivido, volviendo no llegando, en la Llanada Alavesa, pertenezco en consecuencia a aquellas zonas que a lo largo de los siglos romanaceándose ellas han permitido la conservación del Vasceuce en la Vasconia Interior; no soy vasco-parlante, pero siempre he sentido, al igual que la gran mayoría de los alaveses que en Vasceuce apenas pronuncian otras palabras que el nombre de sus pueblos, un profundo respeto y un entrañable afecto por nuestra lengua, nuestra por ser un patrimonio irrenunciable de todo el pueblo vasco, nuestra aunque no la hablemos y en su defensa, y en su conservación y en su cultivo, sin que se la apropie facción, partido, ni ideología alguna que comparada con la milenaria vida del Vasceuce apenas tiene la vida de la rosa, en su defensa, hoy, como en 1918 siempre tendréis el apoyo de la Diputación Foral de Alava.

Sentíos todos como quien regresa a su propia casa.

## ODON APRAIZ JAUNARI OMENALDIA

*Gasteiz, 1976-XII-27*

*Euskaltzainburuaren hitzak*

Arabako Gobernari Ansuategi jauna

Arabako Diputazioko buru Lejarreta jauna eta gainerako ahaldunak

Euskaltzaindikoko jaunak

Eta Gasteiztik, Araba guztitik eta Euskal Herriko eskualde eta toki askotarik gaur hunera bildu zareten Jaun-Andreak:

Gasteizen, Arabako hiriburuan, eta Probintziako etxe jau-regi hunetan egiten du gaur bere batzarrea Euskaltzaindiak. Batzarre ospetsu eta agiria.

Hunelako batzarre agiriak egin ohi ditu Euskaltzaindiak, ez sarri, baina bai zenbait aldiz, gertaera gogoangarri batzuk ospatu nahi dituenean edo sarrera hitzaldi edo omenaldiren bat egiteko ordua denean.

Eta Euskal Herri guztia bere eremutzat duenez gero, batzarre agiri hoiek ere Euskal Herri osoan barna egin ohi ditu.

Gaur, bada, Arabak du txanda.

Odon Apraiz euskaltzain jaunari, Euskaltzaindiak duen gizon jakintsuenetako bati, omenaldia egitea aspaldi erabakia zuen Euskaltzaindiak. Arrazoi bategatik edo bestegatik, ordea, atzeratuaz joan zaigu gaur arte, baina azkenean eta zorionean heldu da eguna.

Arabaren euskal sustraiak aztertzea: horra zein izan den Odon Apraiz jaunaren lanen helburu nagusia. Bere bizitza luzean barna Odon Apraiz jaunak erabili duen kezka eta ardura. Euskal gauzetaz pixka bat axolatu den edozeinek daki zein garrantzitsua eta era berean iluna den puntu hau. Euskal Herriko zazpi probintzietarik bat dugu Araba, hegoaldean kokatua. Euskaldun izana eta orain ere euskaldun dena bazter batzuetan, baina guztiok dakigun bezala, ia aspalditxotik gainbehera latza egin du bertan euskerak, halako moldez non lehengo euskera horren mugak, arrastoak eta xehetasunak jakitea ez baita gaur bat ere gauza erraza. Hor ditugu, bai, Landazuri eta beste zenbaiten lekukotasunak. Hor dira Landuchio, Gamiz, Barrutia, Ulibarri eta beste zenbaitek utzitako lanak. Hor da euskal toponimia, Araban aparteko modu batean oparoa eta ugaria dena, eta hor daude Arabako erderan gelditu diren euskeratiko hitzak. Halaz guztiz, eta hori gora-behera, Araban mintzatzen zen euskera nolakoa zen eta euskeraren mugak mende huntan edo hartan nun ziren erabakitzeko orduan, istiluak eta zalantzak izaten ditugu. Horregatik esan dut punturik ilunenetako bat eta argitu beharre-  
tako bat bihurtu zaigula Arabako euskeraren hauzi hau.

Eta berau argitzen saiatu eta ahalegindu den gizonik izan baldin bada, Odon Apraiz jauna izan da gizon hori. Makina bat lan ditu argitaratuak, aldizkarietan eta hor hemen barreiatuak, eta oraindik argitaragabeak ere bai franko. Hainbeste lanen frutua gal ez zedin, Apraiz jaunaren estudio guzti hoiak liburu batean bilduak argitaratzea erabaki zen. Nahi genuen liburu hori omenaldi egunerako —gaurko egunerako, alegia—, kalean egotea, baina ez da posible gertatu. Dena dela, asko luzatu gabe agertuko dela uste dugu. Euskeraren gora-beherak Arabako lur huntan jakiteko gidari ezin utzia izango da liburu hau.

Odon Apraiz jauna 80 urtetara heldua da. Eta bere bizitza guztian ez du beste ametsik izan bere herriaren kultura gorde, aztertu eta bultzatzea baizik. Ongi irabazia eta merezia du, beraz, Arabako Probintziaren etxe jauregi huntan gaur egiten zaion omenaldi hau, ongi irabazia bere herriak gaur agertzen dion esker ona.

Eta Arabako Diputazioaren etxean eta Arabako ahaldunen aurrean gaudenez gero, esan nahi dut Arabako Diputazio hau izan zela, Euskal Herriko beste hiru Diputazioekin batean, euskeraren aldeko Institutio hunen sortzaile, eta gaur ere berau dela Euskaltzaindi huni gehien laguntzen diotenarik bat. Euskaltzaindiaren izenean Arabarekin dugun zor hau nahi dut, bada, gaur hemen aitortu, eta eskerrak eman.

Beste aldetik, euskaltzaletasunak eta euskera pizteko eta lantzeko gogoak geroago eta erro sakonagoak egiten dituela Araban, eta bereziki Arabako hiriburuan, pozik ikusten dugu. Eta horrek —zer esanik ez—, itxaropenez betetzen gaitu, batez ere geroari begira. Izan ere, behinolako euskeraren arrastoak aztertzea eta jakitea on da, eta behar da. Baina azken batean guk nahi duguna da Arabaren euskaltasunak segida izan dezala, euskera ez dadila hemen betiko gal eta honda. Bizi dadila, alegia.

Excmo. Sr. Gobernador

Excmo. Sr. Presidente de la Diputación y Sres. Diputados  
Señores académicos

Señoras, Señores:

La Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia",  
en íntima colaboración con la Excma. Diputación Foral de

Alava, ha organizado esta sesión pública y solemne para rendir un justo y merecido homenaje a un ilustre miembro suyo, alavés y vitoriano, el Sr. Odón de Apraiz, que ahora justamente cumple los 80 años de edad. El Sr. Odón de Apraiz tiene tras de sí toda una vida larga y laboriosa, consagrada a las tareas de la cultura y de la investigación. Pero sus trabajos han tenido siempre un norte y un hilo conductor claro, a saber, el tratar de desentrañar las raíces euskaldunas de esta tierra alavesa, el llegar a escribir y a trazar, en la medida de lo posible, la historia y vicisitudes del euskera en Alava en los diversos siglos, épocas, etc. Punto este —como salta a la vista— sumamente interesante y hasta intrigante para cuantos nos preocupamos por la cultura vasca y amamos entrañablemente a esta provincia, parte tan caracterizada de la vieja, varia y polifacética Euskal Herria.

No es, sin duda, el Sr. Odón el único alavés que se ha interesado por el tema. En nuestro siglo podríamos citar un buen número de investigadores, hijos de esta provincia, que han laborado y siguen laborando en él, desde Federico Baráibar, pasando por Gerardo López de Guereñu, Pujana, Uribarren, Barrenengoa, Martínez Aguirre, etc.; y perdónese me la omisión involuntaria de otros nombres que sin duda podrían agregarse a esta lista. Pero indudablemente el patriarca en todos estos afanes y empeños es actualmente el Sr. Odón. El es además miembro correspondiente de nuestra Academia desde la fundación de ésta en 1919 y académico de honor desde 1968.

Hoy, pues, la Academia quiere tributar un justo homenaje al Sr. Odón por esta vida consagrada al esclarecimiento de la vasquía de Alava, y en su persona quiere asimismo honrar a todos cuantos en esta provincia, bajo cualquier aspecto o concepto, trabajan en pro de la lengua y cultura vascas.

La producción del Sr. Odón en gran parte está dispersa en multitud de revistas y publicaciones que hoy son de difícil acceso para su consulta por el gran público, y parte de ella continúa aún inédita. Por todo ello se pensó reunir lo mejor de esta producción en un volumen. Y juntamente con él se acordó la publicación de otro volumen de Miscelánea de trabajos dedicados al Sr. Odón con ocasión de este homenaje. Hubiéramos querido hacer coincidir la aparición de ambos volúmenes con este día, pero ello no ha sido posible. De todos modos,

confiamos que en breve aparezcan ambas obras, las cuales han de constituir en el futuro un guía precioso, un instrumento de consulta y de trabajo indispensable para todo lo que se refiere al tema del euskera en Alava.

\* \* \*

*Alava herria* = "el país de Alava". Así, con su nombre propio, viene citada esta tierra alavesa en la obra vasca clásica *Gero*, escrita en el siglo XVII por Pedro de Axular; se la cita —claro está— como una de las componentes de la Euskal Herria histórica. Dijérase que Alava ha querido corresponder al recuerdo que el ilustre escritor vasco tuvo para con ella, abriendo en su honor y con su nombre en Vitoria una hermosa librería, que me cupo el honor de inaugurar. Por otra parte, todos somos conscientes del florecimiento e incremento que el estudio y la preocupación por el euskera han alcanzado en Alava, y singularmente en Vitoria, en los últimos años.

Lo vasco es algo que el alavés siente como parte de su alma y consustancial a su tierra, ya que por todas partes la toponimia, los apellidos, las palabras de su castellano coloquial y muchos de los nombres que figuran en los documentos de los archivos de estos pueblos le están evocando la vieja lengua que fue el idioma de sus mayores.

Algo me ha correspondido en mi vida andar por esta tierra de Alava. No en vano Aránzazu está pegante a Alava, como dice una vieja canción de pandereteras vascas: *Arantzazutik gora, herri bat Araba* = "de Aránzazu para arriba hay un país que se denomina Alava". Como digo, me ha correspondido venir con frecuencia a Alava, y muchas veces he podido comprobar y como tocar con las manos el rico sustrato vasco que aflora por todas partes. Por citar un ejemplo, en Aránzazu es conocida la peregrinación o rogativa anual que hacen a aquel Santuario los pueblos que los propios interesados llaman de "la Láurea", y que son —si no estoy equivocado— Trocóniz, Erenchun, Añua y Eguileta. En vasco, "laurak" significa, como es sabido, "los cuatro", y estos cuatro pueblos siguen denominando a su confederación "la láurea", con el nombre vasco un tanto desfigurado, es cierto, pero todavía

reconocible. Y cuántas de estas cosas o parecidas se podrían citar!

Asimismo, los vasquistas no pueden olvidar que uno de los documentos más antiguos concernientes a nuestra vieja lengua es la llamada Reja de San Millán, del siglo XI, con el catálogo de los nombres de los pueblos alaveses, documento por el que de manera tan inequívoca se comprueba la existencia de la hache aspirada en el vascuence alavés de aquella época.

Pero, en fin, debo ceder la palabra a los ilustres conferenciantes, que son especialistas del tema y van a desbrozar ante nuestros ojos este mundo maravilloso y fascinante de Alava y su sustrato vasco.

Sólo me resta aprovechar esta ocasión para dar las gracias de todo corazón a la Excma. Diputación Foral de esta provincia por la extraordinaria y generosa ayuda que viene prestando tanto a la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia" como a todas las iniciativas para la promoción del euskera y de la cultura vasca en Alava.

Sí. Gracias por todo. Y gracias también al Sr. Odón de Apraiz por sus trabajos y desvelos que, como el presente demuestra, no han resultado baldíos, sino que han florecido en tantas realidades, iniciativas y empeños esperanzadores como son los que en el día de hoy pueden observarse en Alava.

Jaun-Andreak:

Orain segitun azkeneko etsaminetan Euskal Irakasle titulu lortu dutenei hartako diploma banatuko zaie. Baina hitz bat esan nahi nuke titulu hau zer den, nola ematen den etab. ez dakitenen faboretan.

Euskera bizi dadila: hau da, noski, Euskaltzaindiaren helburu nagusia. Euskera bizi dadin, ordea, ikastolak edo eskolak behar-beharrezkoak dira. Beste aldetik, irakasteko gai izango den jendea gabe eskolak jai daukate. Irakasle hoiek sortzeko eta ugaritzeko premia gorria zegoela ikusiz, orain dela lau-bost urte, Euskaltzaindiak titulu hau jarri zuen. Ikastaroak edo kursilloak ere eratzen ditu, etsaminetan eskatzen diren gaiak errezago menderatu nahi dituztenentzat, baina

esan beharrik ez dago, kursilloetara joan gabe ere programa-ko gaiak ikas daitezkeela eta hori zilegitzat jotzen dela. Gero, jakina, titulua lortzeko beharrezkoa da Euskaltzaindiak jarritako etsamina hoiek pasatzea. Euskaltzaindiak badu bere barnean batzorde bat hortarako jarria.

Irakasle titulu huntan hiru maila dira: Gorengoa, Erdikoa eta Bekoa. Gorengoa da, noski, denetan zailena, eta oker ez banaiz, ez zaio oraindik inori ere eman. Bekoa eta Erdikoa, berriz, bai, frankok eskuratu dute.

Gaurko emanaldia ez da, bada, lehenbizikoa. Arrakasta handia izan du eta du Euiskal Irakasle Titulu hunek. Hainbeste jende, batez ere gazteak, datoz beronen eske. Horrek esan nahi du badela bazterretan kezka eta arrangura bizia gure mintzaira ikasteko, eta daukan egoera hitsetik atera eta beste egoera hobeari batera jasotzeko. Eta hau guzti hau benetan pozgarri da. Bai. Etorkizunari itxaropenez begiratzeko arrazoi handia da inondik ere.

Orain baino lehen ere izan da hemen Gasteizen gizon zintzorik, isil-isilik eta bere kabuz urte luzeetan euskera irakasten aritu denik. Esate baterako, Presa jauna. Jaun hoi lan isila ez dugu sekula behar aina eskertuko. Bera hemen baldin bada uste dut biziki poztuko dela bere ahaleginak ekarri duen frutua ikustean.

Gaur, bada, Arabako hiriburu huntan titulu hau jasoko duzuen guztioi neure zorionik bizienak eta eskerrik beroenak eman nahi dizkitzuet.

A continuación se va a proceder a la distribución de los diplomas de profesor de euskera correspondientes a la última promoción. Es decir, aquellos que en estos últimos meses han superado con éxito el examen para ello requerido, recibirán el título acreditativo que confiere Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca.

En gracia a los que ignoren el modo como funciona este asunto del título, quiero decir una palabra al respecto. Hace cosa de 4 ó 5 años Euskaltzaindia se vio obligada a crear este título un poco por sí y ante sí. Y digo que se vio obligada porque comprendió que la supervivencia del euskera reclamaba la escolarización, y ésta no se podía llevar a cabo mientras no hubiera maestros capacitados en número suficiente para la enseñanza del idioma. No había maestros porque no había

escuelas y no había escuelas porque no había maestros. Había que romper este círculo vicioso. Ante esta situación la Academia juzgó que ella debía dar este paso, supuesto que ella es la Institución pública creada por las cuatro Diputaciones del país para velar por el euskera. Y así lo hizo. El título de euskera se confiere con arreglo a un programa establecido. Abarca tres grados: Máximo, Medio, Infimo. Dentro de la Academia existe una Comisión integrada por miembros que son todos Licenciados en Filosofía y Letras. Y ellos son los que presiden los exámenes. La Academia organiza también cursillos para facilitar el aprendizaje de las materias que se exigen en el examen, pero bien entendido que no es obligatoria la asistencia a los dichos cursillos sino sólo el superar con éxito el examen.

La creación de este título ha constituido un verdadero éxito, dado el elevado número de los que anualmente se presentan a obtenerlo. Ello es un gran motivo de esperanza de cara al futuro.

Quiero felicitar cordialmente y dar las gracias a cuantos en este momento van a recibir dicho título. Y aprovecho la ocasión al mismo tiempo para dar también las gracias a los predecesores de estos nuevos profesores del idioma. A aquellos como el señor Presa, que en esta misma ciudad, en labor callada, abnegada y humilde, durante largos años, sin títulos ni diplomas, pero con amor en el corazón y tesón en el alma, se han consagrado a la enseñanza del idioma vasco.

## ODON DE APRAIZ

*Gasteiz, 1976-XII-27*

*Juan San Martin*

Gaur omenaldi berezi hau eskaintzen diogun jauna, Odón de Apraiz Buesa, lehen euskaltzain laguntzaileetariko eta 1968tik ohorezko euskaltzain duguna, Gasteizen bertan sortua 1896ko martxoaren 5ean.